

AURREZKLIK &... ANTOLATU AURREZKIAK



Aurrezklik kontuarekin, zure erritmoan aurreztu ahal izango duzu, bai zure kabuz, bai kuadrillarekin.

1 / 6

Zenbaki hau produktuaren arriskuaren adierazgarria da, 1/6 arrisku txikienaren adierazgarria izanik eta 6/6 handienarena.

LABORAL Kutxa Kreditu Entitateen Gordailuak Bermatzeko Fondora atxikita dago, 2011ko urriaren 14ko 16/2011 Errege Lege Dekretuak aurreikusitakora. Fondo horrek gaur egun bermatzen duen gehieneko zenbatekoa 100.000 eurokoa da gordailugile bakoitzeko.

KONTRATATU!



ABANTAILAK

- Zure aurrezkiak KLIKEZ KLIK planifikatzea



Zehaztu zure aurrezki-helburua: bidaia, tableta, motorra, etxea berritzeko lanak...



Eman kontuari nahi duzun izena: adibidez, AURREZKLIK& bidaia.



Zehaztu zenbat aurreztu nahi duzun, noizko, eta nola, eta horretarako tresnak emango dizkizugu. Planifikatu dena: helburua, zenbatekoa, epea eta erritmoa.



Partekatu kontuaren egoera senideekin, lagunekin ... edozein unetan. Guztion artean klikez klik aurrezteko aukera ere baduzue.



Kontsultatu bilakaeraren grafikoa.



Taldean aurreztea, aurrezteko helburu bera lagunekin, familiarekin edo lankideekin partekatuta. Erraza eta eroso.

-

TALDEAN AURREZTEA

Orain, AURREZKLIK &... kontuarekin, talde-planetarako aurreztu ahal izango duzu, hasieratik amaieraraino.

Indiarako bidaia bat, Eurokoparen finala, gurasoen urrezko ezteietarako sorpresa bat... Guztion artean eta ondo antolatuta, are hobeto.

Noiz, noizko eta zenbat lagunen artean aurreztu nahi duzuen baino ez duzue erabaki behar. Gero, helburua lortzeko zenbat aurreztu behar duzuen kalkulagailuak esango dizue. Horren erraza da.

Nahikoa da zuetako bat LABORAL Kutxako bezeroa izatea.


Eta, nahi duzuenean, dirua atera dezakezue, arazorik eta komisiorik gabe.

-

ZERTARAKO AURREZTEN DUGU?

ZERTARAKO AURREZTEN DU JENDEAK?

Aurrezklik &... kontuen aurrezpen-helburuak aztertu ditugu



LABORAL KUTXAREN IRITZIA

AURREZKLIK &...aurrezteko erabiltzen genuen potoa bezelakoa da, baina hobe: online kontu horretan zeuk erabaki dezakezu nola, noiz, norekin, eta zertarako aurreztuko duzun. Erabakitzen hasita, izena ere jarri ahal diozu: AURREZKLIK & oporrak, adibidez. Eta nahi beste kontu ireki ditzakezu, ez baituzu komisorik ordainduko.

